

Urteroko aitortenak eta aldizkakoak ez diren aitortenak aurkezteko epeak

Errolda aitortenak

009 eredua **Jarduera ekonomikorik egiten ez duten pertsona fisikoek** (ez enpresa jarduerarik, ez lanbide jarduerarik egiten ez dutenek) erabili behar dute hauek egiteko:

- Zergadunen erroldan alta emateko eskatzeko edo IZF eskatzeko, ez badute ez NANik, ez AIZrik eta zergetan eragina duten eragiketak egiten badituzte (ez-egoiliarrek 006 eredua erabili behar dute).
- Identifikazio datuen, zerga egoitzaren, egoera zibilaren edo familia unitatearen osaeran eragina duten familia datuen aldaketa jakinarazteko.
- Heriotzagatiko bajaren berri emateko.

Garrantzitsua: Etxebizitzaz edo egoera zibilez aldatu bazara, jakinarazi lehenbailehen; ez itxaron errenta kanpainara arte.

Nola aurkez daiteke 009 eredua:

- 1.- Eredua egoitza elektronikoan betez (errolda ereduaren izapidea) eta Interneten bidez bidaliz.
- 2.- Eredua laguntza programa erabiliz betez (**www.araba.eus** webgunean eskura daiteke), inprimatuz eta Ogasunari aurkeztuz posta elektronikoz, postaz edo aurrez aurre (kontsultatu ordutegiak eta posta helbidea gai orokorretan).
- 3.- Ogasunaren bulegoetan eta Interneten (betetzeko PDFa) eskuragarri dagoen eredua paperean betez eta posta elektronikoz (**censohacienda@araba.eus**), postaz edo aurrez aurre aurkeztuz (kontsultatu ordutegiak eta posta helbidea gai orokorretan).

Jarduera ekonomikoren bat egiten duten pertsona fisikoek 037 eredua erabili behar dute era horretako komunikazioetarako.

036 eredua **Pertsona juridikoek erabili behar dute** erroldako altaren, bajaren edo aldaketen berri emateko.

Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasibo diren pertsona juridikoek eta entitateek 036 eredua Interneten bidez aurkeztu behar dute nahitaez, egoitza elektronikoaren bidez, ez bada identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko aurkezten dutela.

Nola aurkez daiteke 036 eredua:

Eredua linean betez egoitza elektronikoan eta Interneten bidez bidaliz.

- Salbuespena: IFZ eskatzen duten pertsona juridikoek **www.araba.eus** webgunean eskura daitekeen laguntza programa erabiliz bete behar dute 036 eredua eta PDF agiria inprimatu behar dute Ogasunari aurkezteko. Horretarako, hitzordua eskatu behar dute Interneten bidez (**https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua**) edo **945 18 15 10** telefonoan.

Notarioak gaiturik daude merkataritza sozietateen behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia Interneten bidez eskatu eta lortzeko.

037 eredua **Pertsona fisikoek, jarduera ekonomikoa gauzatzen badute, eta sozietate zibilek, ondasun erkidegoek, jaraunspen jasogabeek eta gainerako erakundeek** erabili behar dute erroldako altaren, bajaren edo aldaketen berri emateko.

JJarduera ekonomikoak egiten dituzten zergapekoek (salbu eta JEZeant alta eman gabeko lokalen errentatzaileek) 037 eredia Interneten bidez aurkeztu behar dute, nahitaez, egoitza elektronikoa, ez bada identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzeko aurkezten dutela edo eredia aurrez aurre eta Arabako Foru Ogasunaren laguntzarekin betetzen dutela.

Nola aurkez dezakete 037 eredia Interneten bidez aurkeztera behartuta daudenek?

Eredua linean betez egoitza elektronikoa eta telematikoki bidaliz.

- Salbuespenak:
 - 1.- IIFZ eskatzen duten pertsona juridikoek **www.araba.eus** webgunean eskura daitekeen laguntza programa erabiliz bete behar dute 037 eredia eta PDF agiria inprimatu behar dute Ogasunari aurkezteko. Horretarako, hitzordua eskatu behar dute Interneten bidez (<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>) edo **945 18 15 10** telefonoan.
 - 2.- Ogasunaren bulego batera joanda eta hango langileek lagunduta bete dezakete eredia. Horretarako, hitzordua eskatu behar dute Interneten bidez (<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>) edo **945 18 15 10** telefonoan.

Nola aurkez dezakete 037 eredia Interneten bidez aurkeztera behartuta EZ daudenek (JEZeant alta emanda ez dauden negozio lokalen errentatzaileak):

- 1.- Eredua linean betez egoitza elektronikoa eta telematikoki bidaliz.
- 2.- Eredua laguntza programa erabiliz betez (**www.araba.eus** webgunean eskura daiteke), PDF fitxategia inprimatuz eta posta elektronikoz, postaz edo aurrez aurre aurkeztuz Ogasunari (helbideak "Gai orokorrak" atalean daude).
- 3.- Ogasunaren bulego batera joanda eta hango langileek lagunduta betez. Horretarako, hitzordua eskatu behar dute Interneten bidez (<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>) edo **945 18 15 10** telefonoan.

036 eta 037 ereduak aurkezteko epeak:

- **IFZ eskatzeko:** Pertsona juridikoek eta nortasun juridikorik gabeko erakundeek, Arabako lurralde historikoan eratu edo ezarri eta hilabete pasatu baino lehen, eta nahitaez enpresa edo lanbide jarduerari ekin baino lehen.
- **Alta aitortzeko, IFZ edukita:** Jarduerari ekin baino lehen, eragiketak egin baino lehen edo atxikipenak edo konturako sarrerak egin beharra sortu baino lehen.
- **Aldaketa aitortzeko:** Oro har, hilabete izango da aurkeztu beharra sortzen duena gertatu eta hurrengo egunetik aurrera, ez bada Zergadunen errolda bakarra eta errolda betebeharrak arautzen dituen urtarilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak (ALHAO, 17. zk., 2011ko otsailaren 9a) 13.4. artikuluan aipatutakoak aurkezteko.
- **Baja aitortzeko:** Hilabete, jarduera eteten denetik, dagokion erregistro ofizialeko idazpena deuseztatzen denetik edo zergapekoa hiltzen denetik.

BEZaren hileko itzulketen erregistroan inskribatzeko eskatzeko:

Eskaera, nahitaez, Interneteko egoitza elektronikoa bidez 036 eta 037 ereduak betez egin behar da

Ondorioak izan behar dituen urtearen aurreko azaroan. Subjektu pasiboek, ez badute erregistroan inskribatzeko eskaera aurkeztu inskripzioak ondorioak izan behar dituen urtearen aurreko urteko azaroan, eta enpresaburuek eta profesionalek, ez badira enpresa edo lanbide jarduerari dagozkien ondasun entrega edo zerbitzu emateak gauzaten hasi baina jarduera horietarako ondasunak edo zerbitzuak eskuratu badituzte eta hori elementu objektiboen bidez berretsi ahal badute, erregistroan inskribatzeko eskatu ahal izango dute aldizkako aitortpen-likidazioak (hilean behingoak edo hiru hilean behingoak) aurkezteko epean.

Ondorioak izan behar dituen urtearen aurreko abenduan. Aurrekoa gorabehera, entitate taldearen araubide berezia aplikatzea aukeratzen duen taldeko entitate nagusiak, baldin eta entitate guztiek, halaber, erabaki badute hileko itzulketa erregistroan inskribatzeko eskatzea, ondorioak izango dituen urtearen aurreko urteko abenduan entitate taldearen araubide berezi hori aplikatzeko aukerarekin batera aurkeztu ahal izango du eskaera.

Halakoetan, entitate taldea denez, inskribatzeko eskaera entitate nagusiak egin behar du.

BEZaren araubide berezi bat hautatzeko, hautatutakoari uko egiteko edo hautapena errebokatze:

Oro har, ondorioak sortu behar dituen urte naturalaren aurreko urteko abenduan, ez bada ondorengo arau xedapenek epe hori aldatzen dutela.

PFEZen jarduera ekonomikoen etekina zehazteko modalitatea hautatzeko edo hautapena errebokatze: Zuzeneko zenbatespen erraztua hautatzeko edo hautapena errebokatze eskaera ondorioak izan behar dituen urte naturaleko martxoaren 1a baino lehen aurkeztu behar da. Jarduera bati ekiten bazaio, jardueraren alta jakinarazten den errolda aitortpenaren 037 eredu adierazi behar da modalitatea hautatu dela.

2026an eta ondoregoetan BEZaren zergapean egotea hautatzeko eta BEZaren zergapean egotearen berri emateko, kenkaririk izateko eskubiderik ez duten nekazaritza araubideko subjektu pasibo salbuetsiek eta enpresaburu edo profesional moduan ez diharduten pertsona juridikoek, baldin eta Europar Batasunaren barruko ondasun eskuratzeek ez badute **10.000 euroko muga** gainditu: edozein unetan, dagokion aitortpena aurkeztuz.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta fortuna handien aldi baterako elkartasun zerga

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zerga aurkezteko kanpaina 2026ko bigarren hiruhilekoan egingo da.

Oinordetzen gaineko zerga

Autolikidazioa kausatzailearen heriotza gertatzen den egunaren edo heriotzaren aitortpena irmo bihurtzen den egunaren biharamunetik **SEI hilabete** pasatu baino lehen aurkeztu behar da (ereduak: 650, 652, 653, 654 eta 655).

Sei hileko epea hamar hilabetera luzatuko da, kausatzailearen heriotza edo Kode Zibileko 966. artikuluan aipatzen diren gertaerak atzerrian gertatzen badira.

Dohaintzen gaineko zerga

Autolikidazioa zerga egitatea gertatzen denetik 30 egun baliodun pasatu baino lehen aurkeztu behar da (ereduak: 651, 652, 653, 654 eta 655).

Ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

600U, 600R, 600M, 600P, 600S ereduak Autolikidazioa aurkezteko epea **30 egun baliodunekoa da** zergari loturiko eragiketa jasotzen duen dokumentua egiletsi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

630 eredia eskudirutan ordaintzea 192.323,87 eurotik gorako zerga oinarria duten kanbio letren soberakina: **30 egun baliiodun**, zerga egitatea egin eta hurrengo egunetik aurrera. Atzerriko letren kasuan, epea 30 egun baliiodunekoa da, Espainiako lehenengo edukitzailearen eskura jartzen direnetik.

620-TV eredia Partikularren artean erabilitako garraiobide jakin batzuen salerosketa: **30 egun baliiodun** ibilgailua eskualdatu eta hurrengo egunetik aurrera.

610 eredia kreditu erakundeek negoziatutako dokumentuak kargatzen dituen egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga eskudiruz ordaintzea: dagozkion eragiketak sortu eta hurrengo hilabetearen 25. egunera arte, ez bada uztaileko zerga, zeinaren aitortpena irailaren 25era arte aurkeztu eta ordaindu ahal izango baita.

611. eredia Aitorpenaren urteko laburpena hurrengo urteko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu behar da, eta bertan jaso behar da aurreko urtean negoziatzeko edo kobratzeko onartu diren ordainagiriak, ordaindukoak, txekeak eta merkataritzako beste dokumentu batzuk kargatzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan eskudirutan ordaindutako zenbatekoei buruzko informazioa.

Balio erantsiaren gaineko zerga

308 eredia **Itzulketa eskaera**, ez enpresaburu, ez profesional ez direnek EBko beste herrialde batzuetara egindako garraiobide berrien entrega salbuetsiengatik egitekoa: 30 egun natural, entrega egiten den egunetik zenbatzen hasita.

Itzulketa eskaera, araubide berezi erraztua aplikatzen duten eta bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek jarduera horiei atxikitako garraiobideak eskuratzegatik jasandako kuotengatik: garraiobidea erosi eta hurrengo hilabeteko lehenengo 25 egun naturalak.

309 eredia **aldizkakoa ez den aitortpen-likidazioa**, ez enpresaburu, ez profesional ez direnek EBko beste herrialde batzuetan garraiobide berriak eskuratzegatik aurkeztu beharrekoa: 30 egun natural, ondasuna eskuratzen den egunetik aurrera, eta, nolana ere, behin betiko matrikulatu aurretik.

390 eredia **hainbanaketa berezia aplikatzea hautatzea edo hautapena errebokatzea**: 2025erako hainbanaketa berezia aplikatzeko aukera edo hura errebokatzea 2026ko urtarrilaren 1etik 31ra egin ahal izango da

Erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiko egoitza elektronikoen bidez (BIH) kudeatzea; hain zuzen ere, fakturazio erregistroak elektronikoki hornitzea, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera..

BIH nahitaezkoa da da likidazio aldia hilabete naturalarekin batera duten enpresaburu, profesional eta gainerako subjektu pasiboentzat: enpresa handiak (BEZaren Foru Arauaren 121. artikulua arabera, aurreko urtean 6.010.121,04 eurotik gorako eragiketa bolumena), BEZaren taldeak eta Hileko Itzulketen Erregistroan (REDEME) izena emanda daudenak.

BIHari nahitaez bete behar ez dutenek borondatez egin ahal izango dute, 036 edo 037 ereduko aukera erabiliz, edozein unetan errolda aitortpenean (036 eredia), eta aukera hori baliatu den likidazio aldia amaitu eta hurrengo egunetik edo jarduera hasieraren aitortpena aurkeztean geratuko da jasota. Aukera hurrengo urteetarako luzatu dela ulertuko da, aplikatzeari uko egiten

ez zaion artean. Uko egitea 036 edo 037 ereduari egin behar da, ondorioak izan behar dituen urtearen aurreko azaroan.

Oro har, BIH aplikatzen dutenak salbuetsita daude "Hirugarren pertsonetik eragiketen aitortpena" izeneko **347 eredua** aurkeztetik.

TicketBAI betebeharra betetzeko zerga administrazioari bidalitako informazioak erregistro liburuak apartatu honetan aipatzen den egoitza elektronikoen bidez eramateko betebeharra betetzeko balioko du. Hala ere, betebeharraren ondorioz informazio gehigarria eman behar bada bidalitako TicketBAI alta fitxategian jasotakoaz gain, horretarako zehaztutako bideen bidez eman beharko da (ikus TicketBAI informazioa webgunean).

TicketBAI sistemaren bidez igorritako fakturei buruzko informazioa bidaltzen dutenek ez dute bidali beharko 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera igorritako fakturei buruzko informaziorik, salbu eta, hala badagokio, bidezko informazio gehigarria.

035 eredua Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo urrutiko ondasun salmentak edo barruko ondasun emate jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikatzekoak zaizkien araubide berezietan jasotako eragiketak hasteko, aldatzeko edo eteteko aitortpena. HASIERA: jarduerak hasi baino lehenago aurkeztu behar da edo, dagoeneko hasi badira, hasiera horren hurrengo hilaren hamarrera arte. ALDAKETA: aldaketaren hurrengo hilaren hamarrera arte aurkeztu behar da. BAJA: araubidea erabiltzeari utzi nahi zaion hilaren edo hiruhilekoaren aurrekoa bukatu baino gutxienez hamabost egun lehenago aurkeztu behar da.

369 eredua Subjektu pasibo ez diren pertsonen zerbitzuak ematen dizkieten edo urrutiko ondasun salmentak edo estatu barruko ondasun emate jakin batzuk egiten dituzten subjektu pasiboek aplikatzekoak zaizkien araubide berezietako aldizkako aitortpen-likidazioa: likidazioaldiaren (hiruhilekoa edo hila) ondoko hileko lehen hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da, uztailekoa izan ezik, hori irailaren 10era arte aurkeztu ahal izango da eta.

Sozietateen gaineko zerga

200-220 ereduak Sozietateen gaineko zergaren aitortpen-likidazioa.

Aitortpena zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilaren ondoko 25 egun naturaletan aurkeztu behar da. Establezimendu iraunkorren bidez jardunez gero, betebeharraren errealeko subjektu pasiboek ere aurkeztu behar dute.

Aipatutako epearen hasieran Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ez badu zehaztu zergaldi horretako aitortpena aurkezteko era, 25 egun natural izango dira aitortpena aurkezteko, aurkezteko era hori zehazten duen arau indarrean jartzen denetik aurrera.

Dena den, horrelakoetan zergadunak aukeran izango du aitortpena aurreko paragrafoan adierazitako epean aurkeztea, baldin eta aurreko zergaldiko aitortpenerako ezarritako betekizun formalak betetzen baditu.

Zergak Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta lege arrunteko lurraldeko araudien pean ordaintzen dituzten entitateek araudi horietan ezarritakoa bete behar dute, eta nork bere administrazioko laguntza programak erabiliz prestatu behar dituzte aitortpenak..

Sozietateen gaineko zergaren aitortpen guztiak, araudi aplikagarria eta aitortpen eredua (200 edo 220) edozein direlarik ere, telematikoki aurkeztu behar dira nahitaez egoitza elektronikoa erabiliz.

20R eredua Eragiketa hauen zerga araubide berezia aplikatzeko aukeraren komunikazioa: **bategiteak, zatiketak, aktibo ekarpenak, balore trukeak, aktiboaren eta pasiboaren lagapen osoak, eta Europako sozietate edo sozietate kooperatibo baten egoitza Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzea.**

Eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa inskribatu eta hurrengo hiru hilabeteetan aurkeztu behar da.

Inskripzioa beharrezkoa ez bada, eragiketa dokumentatzen duen eskritura publikoa egiten den egunetik aurrera zenbatuko da epea. Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskrituran araubidea hautatu dela adierazi behar da.

20R eredua telematikoki aurkeztu behar da nahitaez, egoitza elektronikoaren bitartez.

202-222 ereduak Sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren aitortpen-likidazioa, zergak Araban ordaindu eta Nafarroako edo lurralde erkideko araudia betetzen duten zergadunentzat.

Zergadunari aplikatzekoa zaion araudian ezarritakoaren arabera kalkulatu da ordainketa zatikatua. Apiril, urri eta abenduaren lehenengo 20 egun naturaleko epea izango da aurkezteko.

Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredua linean betez.

203-223 ereduak Sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatuaren aitortpen-likidazioa, zergak Araban ordaindu eta Nafarroako edo lurralde historikoetatik edozeinetako araudia betetzen duten zergadunentzat.

Betebehar horretatik salbuetsita daude mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat jotzen diren entitateak eta talde fiskalak, edo Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauak 56. artikulua 4. eta 5. apartatuetan ezarritako karga tasak ordaintzen dituztenak.

Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 14. artikuluan aipatzen diren ondare sozietateek eta salbuespen partziala duten entitateek ordainketa zatikatua egin beharko dute foru arau honetako 13. artikuluko 1. eta 2. apartatuetako b) eta c) letretan ezartzen diren baldintzak betetzen ez badituzte.

Halaber, Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren VI. tituluaren III. kapituluaren aipatzen diren aldi baterako enpresa elkarteek eta interes ekonomikoko taldeek artikuluko honetan arautzen den ordainketa zatikatua egin beharko dute, eta horretarako egoiliar ez diren bazkideen zerga oinarria eta atxikipenak hartu beharko dituzte erreferentziaz.

Urriaren lehenengo 25 egun naturaletan aurkeztu behar da.

Telematikoki egoitza elektronikoaren bidez baino ezin da aurkeztu.

217 eredua Sozietateen gaineko zergaren aitortpena: higiezinaren merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatutako dibidenduen edo mozkinetako partaidetzen gaineko karga berezia.

Aurkeztu eta ordainketa 2 hilabeteko epean egin behar da, akziodunen batzar orokorrak edo organo baliokideak mozkinak banatzeko erabakia hartzen duen egunetik aurrera.

Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredua linean betez.

231 eredua Informazio aitortpena herrialdez herrialde.

Eman beharreko informazioari dagokion zergaldia amaitu eta hurrengo egunetik zergaldi hori amaitu eta hamabi hilabete igaro arteko epea izango da aurkezteko. Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu linean betez.

232 eredu Eragiketa lotuen eta zerga paradisuekin lotutako eragiketen berri emateko aitorpena.

Eman beharreko informazioak aipatzen duen zergaldia amaitu eta ondorengo hamar hilabeteen ondorengo hilabeteen aurkeztu behar da. Telematikoki egoitza elektronikoaren bidez baino ezin da aurkeztu.

237 eredu Sozietateen gaineko zergaren aitorpena: higiezin merkatuan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuek banatu ez dituzten mozkinen gaineko karga berezia..

Aurkeztu eta ordainketa 2 hilabeteko epean egin behar da, akziodunen batzar orokorrak edo organo baliokideak ekitaldiko emaitza aplikatzeko erabakia hartzen duen egunetik aurrera. Nahitaez telematikoki aurkeztu behar da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen eredu linean betez.

Zenbait garraibideren gaineko zerga berezia

05 eredu Zergapean ez egoteko edo salbuespena edo zerga oinarriaren murrizketa aplikatzeko aurretiazko onarpena eskatzen bada, eredu hau automatikoki sortuko da 576 eredu betetzean, eta behin betiko matrikulazioa baino lehen aurkeztu behar da 576 ereduarekin batera.

576 eredu Autolikidazio eredu hau garraibidea behin betiko matrikulatu aurretik aurkeztu behar da, bai eta diru sarrera egin ere, hala badagokio.

06 eredu Aitorpen eredu hau aurkeztu behar da, baldin eta zergadunari ez bazaio aurretiazko onarpena eskatzen zergapean ez egoteko edo salbuetsita egoteko.

Fabrikazioaren gaineko zerga bereziak

2021eko urtarriletik zerga berezien izakinen kontabilitateko erregistro liburuak eramateko sistema ezarri da, kontabilitate idazpenen berehalako hornidura sistema batekin (SILICIE). 2026ko urtarrilaren 1ean, 2.0 bertsioa jarri da indarrean, zerga berezien izakinen kontabilitateko erregistro liburuak eramateko sisteman, kontabilitate idazpenen berehalako hornidura sistema baten bidez (SILICIE). 545/2025 Foru Agindua, urriaren 13koa (2025eko urriaren 22ko ALHAO). Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez kontabilitate sistema baten bidez kontabilitatea eramatera behartuta daude zerga berezien xede diren eta zerga horien araudian jasota dauden establezimenduen titularrak (30/2020 Foru Agindua, urtarrilaren 27koa, zeinaren bidez fabrikazioaren gaineko zerga bereziek zergapetzen dituzten produktuen kontabilitatea eraman beharra betetzea arautzen baita, eta 545/2025 Foru Agindua, urriaren 13koa, 30/2020 Foru Agindua aldatzen duena). Kontabilitatea eramateko sistema berri hori bete behar duten zergapekoak salbuetsita daude eragiketen aitorpenak aurkezteko betebeharretik.

2025ean, fabrikazio zerga berezi berri bat sortzen da, zigarreta elektronikoetarako likidoen, nikotina poltsen eta botikatzat jotzen ez diren nikotinazko beste produktu batzuen kontsumoaren gainekoa, tabako laboreen gaineko zergaren eremu objektiboan sartzen ez direnak.

573 eredua Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Autolikidazioa

573 eredua aurkeztu beharko du Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35.3 artikuluko pertsona fisiko edo juridikoek eta entitateek, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 64 quinques artikuluan zergaduntzat definitzen direnek. Aurkezteko epea: kasuan kasuko likidazio aldia amaitu eta hurrengo 25 egun naturaletan, salbu eta urtarrilean aurkeztu behar dena, hilabete horren 31ra arte luzatuko baita.

A24 Zigarreta elektronikoetarako likidoen eta tabakoarekin lotutako beste produktu batzuen gaineko zerga. Europar Batasunaren barruko bidalketengatik itzultzeko eskaera.

Bat. Zerga honen xede diren produktuak barneko lurralde eremutik Europar Batasuneko beste estatu bateko lurraldera bidaltzen dituztenek eskubidea izango duite lurralde horretan ordaindutako kuoten itzulketa jasotzeko. Itzulketa hori eskatu ahal izateko, A24 eredua aurkeztu beharko da.

A24 eredua aurkeztuko da itzultzeko eskaera eragin duten gertakariak gertatu diren hilabetea amaitu eta hurrengo hogeita bost egun naturalen barruan, urtarrilean aurkeztu behar dena izan ezik, hil horren 31ra arte luzatuko baita.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Jarduera ekonomikoaren alta, baja edo egoitza aldaketa egin nahi duten zergadunek **errerrolda aitorpena (036 edo 037 eredua) aurkeztu behar duite jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) jardueraren alta, baja edo egoitza aldaketa izapidetu aurretik**, dela dagokien udalean (udal kuota) edo Arabako Foru Aldundian (probintzia kuota edo estatu kuota) (10/2015 Foru Dekretua, martxoaren 10ekoa; ALHAO, 33. zk., 2015eko martxoaren 18koa).

- **ALTA aitorpenak:** Jardueran hasi aurreko hamar egun baliodunetan aurkeztu behar dira.
- **ALDAKETA aitorpenak:** Aldaketa ekarri duena gertatzen denetik hilabete igaro baino lehen aurkeztu behar dira.
- **BAJA aitorpenak:** Hilabete, jarduera uzten denetik zenbatuta. Subjektu pasiboa hilez gero, haren kausadunek baja aitorpena egin behar duite aurreko paragrafoan aipatutako epean (heriotza egunetik zenbatuta).

840 eta 841 ereduen aitorpenak aurkezteko lekua:

- a) Udal kuotaren bidez ordaintzen denean, jarduera egiteko tokia zein udal barrutitan dagoen begiratu behar da, eta hari dagokion udaletxean egin behar da, zergaren jarraibidean definituta dagoen bezala.
- b) b) Probintzia edo estatu kuotaren bidez ordaintzen denean, Arabako Foru Aldundian.

Eragiketen zenbatekoaren jakinarazpena: **848 eredua** jakinarazpenak ondorioak sortu behar dituen urteko urtarrilaren 1etik otsailaren 14ra arte, biak barne.

848 ereduaren aitorpenak aurkezteko lekua:

848 eredua bide telematikoz egingo da

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga

1.- ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRA DUTENAK

Arabian dagoen establezimendu iraunkor baten bidez diharduten subjektu pasiboek zerga ordaintzeko betebeharrak pertsonala duten subjektu pasiboentzat ezarritako modu, leku eta epeetan aurkeztu behar dute aitortpena.

Atzerrira bidalitako errenten gainean zergapetze osagarriak izan bada, 210 eredu ere aurkeztu behar dute.

2.- ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRIK EZ DUTENAK

210 eredu establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarren aitortpen arrunta.

Aurkezpen telematikoa

Autolikidazioa aurkezteko eta, hala badagokio, ordaintzeko epea, errenta motaren arabera izango da:

- Ondasun higiezinak eskualdatuta lortzen diren errenten autolikidazioak aurkezteko, likidazioaren emaitza gorabehera, hiru hilabete izango dira, ondasun higiezina eskualdatzen denetik hilabete igarotakoan zenbatzen hasita.
- Ondasun higiezinaren errentak aurkezteko, sortzapen egunaren hurrengo urte osoa; hau da, urteko azken egunean bukatuko da epea.
- Higiezinaren errentamendutik edo azpierrementamendutik eratorritako errenten kasuan, elkartzeko aldia urtekoa izango da, baldin eta urtean zehar errentarien aldaketarik egon ez bada. Eredua sortzapenaren ondorengo urteko urtarilean aurkeztuko da.
- Ordaindu beharreko gainerako errentak edo zero kuotadunak, hiruhileko bakoitza bukatu ondorengo lehen hogeita bost egunetan, aurreko hiruhileko naturalean sortutako errentei gagozkiela, salbu eta laugarren hiruhilekokoak, zeinaren epea hiruhilekoa bukatu ondoko urtarila izango baita.
- Itzultze eskaerako gainerako errentak aurkezteko, bost urte izango dira, itzulketa eragiten duten atxikipenen eta konturako sarreraren autolikidaziorako eta sarrerarako epealdia amaitzen denetik aurrera. Bost urteko epealdi hori autolikidazio guztiei aplikatuko zaie, itzulketa zerk eragiten duen kontuan hartu gabe (estatu barruko arautegiak edo zergapetze bikoitza saihesteko hitzarmen batek); hitzarmena garatzen duen aginduak epealdi laburragoa finkatzen duen kasuetan ere aplikatuko da. Autolikidazioa aurkezteko epealdia amaitutzat joko da aurkezten denean.

211 eredu Aitortpen-likidazioa, establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako konturako atxikipena.

Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrei ondasun higiezinak erostean egindako atxikipena (% 3) ordaintzeko erabiliko da.

Aurkezpen telematikoa

Epea: Hilabete, higiezina eskualdatzen den egunetik aurrera.

213 eredu Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia.

Erakunde ez-egoiliarren ondasun higiezinaren gaineko karga berezia aitortzeko eta ordaintzeko erabiliko da.

Epea: Urte bakoitzeko abenduaren 31rako sortutako karga hurrengo urteko urtarilean aitortu eta ordaindu behar da.

216 eredua Ez-egoiliarrek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten gaineko atxikipenen eta konturako sarreraren aitorpen-likidazioa.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei konturako sarrerak edo atxikipenak aplikatu behar dizkieten subjektuek erabili behar dute.

Aurkezpen telematikoa

Epea: Hiruhileko aitorpena bada (oro har), apirilaren, uztailaren eta urriaren 1etik 25era eta urtarrilaren 1etik 31ra arte. Hileko aitorpena bada (enpresa handiak > 6.010.121,04 € aurreko urtean): hilaren 1etik 25era, aurreko hilabetekoa; salbuespena: abendukoak urtarrilaren 1etik 31ra arte aitortu behar dira, eta uztailakoak hurrengo abuztuaren 1etik irailaren 10era arte.

289 eredua Elkarrekiko laguntzaren esparruko finantza kontuen berri emateko urteko aitorpena. Bitarteko elektronikoeekin bidez aurkeztu behar da, web zerbitzuen bidez.

Epea: Urtarrilaren 1a eta maiatzaren 31 bitartean, urtero, aurreko urteko finantza informazioari buruzkoa.

290 eredua Pertsona estatubatuar jakin batzuen finantza kontuen urteko informazio aitorpena. Mezu informatikoa igorri aurkeztu behar da.

Epea: Urtarrilaren 1a eta maiatzaren 31 bitartean, urtero, aurreko urteko finantza informazioari buruzkoa.

291 eredua Ez-egoiliarren kontuen etekin informazio aitorpena.

Epea: Urtarrilaren 1etik otsailaren 10era arte, aurreko egutegi urtean lortutako etekinak aitortzeko

296 eredua Atxikipenen eta konturako diru sarreraren urteko aitorpena. Establezimendu iraunkorrik ez duten ez-egoiliarrak.

296 eredua aurkezteko betebeharra dute pertsona fisiko, juridiko eta gainerako entitateek baldin eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergatik atxikipenak edo konturako ordainketak egiteko betebeharra badute, eta betebeharrak hori izango da zerga horren zergadunek establezimendu iraunkorrik izan gabe eskuratutako errentei buruz, bat etorri zerga hori arautzen duten lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin; salbuetsita egongo dira honako hauek: atxikipenak egiteko betebeharra dutenak inbertsio kolektiboko erakundeen kapitala edo ondarea ordezkatzeko duten akzio edo partizipazioak eskualdatu edo ordaintzean, edo atxikipenak edo konturako ordainketak egiteko betebeharra dutenak, zenbait loteria edo apusturen sarietan, eta, orobat, Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren 21/2014 Foru Arauak 25. artikularen 2. apartatuan aipatzen den atxikipena egiteko betebeharra dutenak, hain zuzen ere, establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrei ondasun higiezinak eskuratzean, zeinek eredu espezifiko batean aurkeztu beharko baitute urteko laburpena.

Aurkezpen telematikoa

296 eredua telematikoki aurkeztu behar da Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa (www.araba.eus).

Epea: Urte bateko aitorpena hurrengo urteko urtarrilean aurkeztu behar da.

Zerga plangintzarako, informazio trukerako eta iruzurraren aurkako borrokarako mugaz gaindiko mekanismoen inguruko informazioa

234 eredua Zerga plangintzarako mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuen informazio aitortpena: 35/2020 Foru Dekretuaren 2. artikuluko 3. apartatuan definitutako informatu beharra sortu eta hurrengo 30 egun naturalak.

235 eredua Mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarri jakin batzuen eguneratzeari buruzko informazio aitortpena: Jatorrian 234 ereduan edo aurkeztutako azken 235 ereduan aitortutako mekanismo beraren ondoren mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarriak eskuragarri jarri diren hiruhileko naturala amaitu eta hurrengo hilabete naturala.

236 eredua Zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismo jakin batzuen erabilerari buruzko informazio aitortpena: Aldez aurretik aitortu behar izan diren mugaz gaindiko mekanismoak Espainiako lurraldean erabili diren urtearen hurrengo urte naturaleko azken hiruhilekoa. Hiru eredu horiek web zerbitzu baterako eskaera bidez bidali behar dira, protokolo seguru batez.

238 eredua Plataforma operadoreek informazioa emateko aitortpena: Urtero aurkeztu behar da, "saltzailea" "informazioa ematera behartuta dagoen saltzailetzat" jotzen den urte naturalaren urtearen ondoko urtarrilean. 238 eredua aurkeztera behartuta daudenek Plataforma Operadoreen Erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko 040 errolda aitortpena aurkeztu behar dute, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa dagoen Erregistro Elektronikoa Komunaren bidez bete daitekeen inprimakiaren bidez.

379 eredua Mugaz gaindiko ordainketen berri emateko aitortpena: Hiru hilean behin aurkeztu behar da, hiruhileko natural bakoitzean egindako mugaz gaindiko ordainketei buruz. Hiruhileko naturalaren hurrengo hilabetean aurkeztu behar da.

172 eredua Diru birtualeko saldoen berri emateko aitortpena. Aurkezteko epea: urte bakoitzeko urtarrilean, aurreko urteko saldoei dagokienez.

173 eredua Diru birtualeko eragiketen berri emateko aitortpena. Aurkezteko epea: aitortutako informazioari dagokion urtearen hurrengo urteko urtarrilean.

TICKETBAI

Jarduera ekonomiko guztien fakturak bidaltzeko eta foru ogasunek egiaztatzeko sistema da TicketBAI.

TicketBAI sistemak jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko eta nortasun juridikorik gabeko erakunde guztiei eragiten die, baldin eta Euskadiko foru ogasunen PFEZari edo sozietateen gaineko zergari buruzko araugintza eskumenari lotuta badaude, bat etorri maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean xedatutakoarekin.

Interneten daude argibide guztiak: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai>

Kontsultak 945569028 telefonoan egin ditzakezu, edo inprimaki hau bete: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/formularioa-ticketbai>

Gogoratu

Zerga baten aitorpena aurkezteko epeko azken eguna jaieguna edo larunbata izanez gero, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da (44/2003 Foru Dekretua, martxoaren 7koa; ALHAO, 36. zk., 2003ko martxoaren 28koa).

Neurri horrek ez du eraginik izango finantza erakundeek Arabako Foru Aldundiari diru sarrerak egiteko finkatuta dauzkaten egunei dagokienez.

Arabako Foru Ogasunaren aldizkari elektronikorako harpidetza egin dezakezu <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ogasunaren-aldizkari-elektroniko> web orrian, zerga berrietasunak jasotzeko edota hilabete bakoitzari dagozkion epemugen egutegia jasotzeko hileru.

Egutegi hau 2025eko abenduan egin da, eta, bitartean, arau proiektuak izapidetzen ari ziren.